



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

POLITIKA OROKORRARI BURUZKO URTEKO ADIERAZPENA

2021

POLITIKA OROKORRARI BURUZKO URTEKO ADIERAZPENA

2021-10-29

1.- Salbuespeneko 18 hilabete.

a) Azken urteko egoera.

2020ko Urriaren 27an politika orokorrari buruzko urteko adierazpena dela eta Osoko Bilkura ospatu genuenean, martxoaren 14tik aurrera bizitako egora larriari buruz hitz egiteko aukera izan genuen. Momentu horretan, negu gogor baten atarian geunden. 18 hilabete luze hauetan gurekin izan dugun birusak erabat baldintzatu duen urtea izan da azken urte hau.

Gure Hiria, berriro ere osasun krisiaren kudeaketan murgilduta ikusi dugu azken urte honetan. Kudeaketa zaila izan da, egoera luzatu den heinean nekea nagusitu baita hiritarren artean.

Gizarte mailan egoera honek eragindako egoeraz luze aritu gaitezke. Jakina, pandemiak uzten duen emaitzarik gogorrena heriotza izan da. Gure artetik joan diren guztiak gogora ekarri nahiko nituzke orain. Eta egoera gainditzeko bidean gaudela dirudien honetan, **gure hirian guztiak oroitzeko balioko duen leku bat bilatzea proposatzen dizuet, bizi izandakoa oroitzeko leku bat.**

Propongo que todos los grupos municipales acordemos un espacio físico en la ciudad en el que recordar y honrar la memoria de las personas que nos dejaron durante esta pandemia. Creo que es bueno que exista un lugar que recuerde el paso de esta pandemia por nuestra ciudad.

Heriotzaz haratago, beste eragin asko izan ditu pandemiak gure artean. Eragin sozialak, psikologikoak eta ekonomikoak. Krisi hau hasi zenean askok zioten hobeak izaten irtengo ginela. Nik ez daukat hori hain argi. Krisiak ikasteko aukera asko eskaini dizkigu. Donostiak egoera zailetara moldatzeko gaitasuna duela erakutsi du. Baino egia da ere egoera honek zaurgarrien direnak gehiago astindu dituela, gure arteko

ezberdintasuna areagotzeko arriskua handituz. Hori oso kontuan izan beharreko gauza da, gure ekimena hori saihestera zuzendu behar baitugu.

Egia da ere krisiak gure arteko bizikidetzan eragina izan duela, eta kasu askotan modu negatiboan. Azken hilabeteetan ikusi ditugun hainbat jarrera bortitzek hori adierazten digute. Krisiaren lehen hilabeteetan elkartasun giroa zen nagusi, larrialdiari bat eginik ekiteko grina. Hilabeteak igaro ahala ordea, jarrera berekoiak ikusi ditugu, geroz eta gehiago. Normaltasunak aurrera egin ahala, joera horiek gainditzea espero dugu, baina iruditzen zait bizikidetza hobetze aldera lan egin beharko dugula guztiok.

Pandemiari aurre egiteko modurik eraginkorrena txertoa izan dela nabarmena da, helburu horretara zuzendu dugu orain gutxi arte Illunbe. Aipagarria da Erkidego mailan eta noski Donostian lortutako txertaketa maila altua. Hiritarren erantzun apartak, zailtasunak zailtasun, baikor izateko arrazoik eskaintzen dituelakoan nago.

Pandemiak eragindako zenbait ondorioen azterketa laburra:

Guztiok ezagutzen ditugu bizi dugun krisiak eragin dituen ondorio nagusienak zeintzuk diren.

Datuei erreparatzen badiegu, krisi honek Barne Produktu Gordinak behera egitea ekarri du Donostian, eta ondorioz, zenbait jarduera desagertu dira eta langabeziak gora egin du 2019rarte generaman joerarekin alderatuta. 2021 urtea errekuperazio urtea izaten ari da, nahiz eta oraindik ez dugun lortu krisia hasi aurretik genuen egoera erabat berreskuratzea. Langabezia tasa adibidez, %8tik gora dago oraindik, BPGa ez da oraindik 2019. urtearekin alderatuta genuen mailara ailegatu eta gizarte laguntzen kopurua oraindik orduan baino altuagoa izaten jarraitzen du.

Gure hiria zerbitzu hiria izanik, merkataritza, ostalaritza eta alojamendu sektoreetan sufritu ditu eragin nagusienak. Dendak galdu dira, lehenagotik zetorren joera hareagotu delarik. Azken bost urte hauetan ez bezala, ostalaritzara zuzendutako jarduerak ere gutxitu egin dira.

Seguruenik, 2021. urte hau igaro arte zaila izango zaigu hiriaren argazki egonkorrago bat izatea, salbuespen egoerek distorsionatu egin baitute

azken urte hauetan Donostiak zuen eboluzioa. Dena dela, datu guztien arabera, berriro ere 2020ko martxoan utzi genuen egoera berreskuratzeko atarian gaudela esan daiteke.

b) Udalak hartutako neurri bereziak.

Una situación extraordinaria requiere una respuesta extraordinaria por parte de las instituciones, y en este caso por parte del Ayuntamiento. A pesar de las dificultades, creo que este Ayuntamiento ha sabido dar respuesta adecuada a las situaciones que se han planteado en cada momento.

Siendo conscientes de cuáles eran los sectores más impactados por la situación, se han ido articulando respuestas de choque que han ayudado a resistir y a superar la situación.

Quisiera destacar en este punto la labor realizada por la Sociedad de Fomento, que tras la respuesta ofrecida en el ejercicio 2020, tras la aprobación de los presupuestos por parte del Ayuntamiento lanzó de inmediato las ayudas para el presente ejercicio. Unas ayudas que han requerido también este año una aportación extraordinaria por parte del Ayuntamiento. Aportación que se vio aumentada gracias al acuerdo presupuestario alcanzado por el Gobierno Municipal con Elkarrekin Donostia.

La adaptación de la regulación de las terrazas en la hostelería, la exención del pago de tasas, las sucesivas campañas de bonos para animar el consumo o la creación de dssmarketplaza han sido iniciativas muy bien acogidas por el sector. Iniciativas que ha requerido un gran esfuerzo económico durante los dos últimos ejercicios. Un esfuerzo prioritario para este Gobierno durante este tiempo. Esfuerzo que especialmente en el caso del comercio local creemos merece la pena mantener, sobre todo en lo que se refiere a digitalización y adaptación a la compra on-line.

Datos:

PREK 2020

12.351.930 euros de las cuales 2.966.000 exención de tasas

PREK 2021

10.990.000 euros de los cuales 1.000.000 exención de tasas

Ez dugu etsiko. Gure ostalari eta merkatariengandik gertu jarraituko dugu. Vamos a seguir trabajando y apoyando a nuestro comercio y nuestra hostelería. Lo hemos hecho, y lo vamos a seguir haciendo.

La situación que hemos vivido ha exigido también una mayor respuesta por parte de los Servicios Sociales del Ayuntamiento. De hecho, en este área el presupuesto municipal para el presente ejercicio ha sido el más alto que hemos conocido en la historia. Ante la previsión de tener que dar respuesta a una mayor demanda, el presupuesto de 2021 era un 4,2% mas alto que el de 2020. Y la realidad nos ha confirmado que efectivamente era necesario.

En lo que a ayudas de carácter municipal se refiere, el número de familias que ha requerido Ayudas de Emergencia social se ha reducido en un 13% con respecto al año pasado, lo cual refleja el cambio de tendencia que se está produciendo con respecto al ejercicio anterior. Ahora bien, cabe señalar que aunque el número de perceptores se ha reducido, la cantidad total destinada a este fin sigue siendo la misma. Es decir, hay menos demanda pero las ayudas son por un mayor importe.

Además de la concesión de Ayudas de Emergencia Social, el año 2020 se atendieron 637 familias o personas mediante ayudas directas. Este año son 549 unidades convivenciales las atendidas, es decir, que este número también ha ido decreciendo.

Para el ejercicio 2022, el proyecto de presupuesto vuelve a incrementar las partidas sociales. Creo que todos somos conscientes del peligro que representa el incremento de los precios de la energía sobre las familias más vulnerables, ante lo que debemos estar preparados.

Este año además se ha puesto en marcha el programa Otorduak, un programa que ofrece menús en establecimientos de hostelería a personas que viven en calle.

Bizi izandako egoerak kultura sektoreari ere modu nabarmenean eragin dio. Programatzeko zaitasunek gure hirian pisu handia duen esparru bati egoera latza ekarri dio.

Zaitasun guztien gainetik ordea, gure apustua garbia izan da: Egoera bakoitzean ahalik eta gehiena egitea. 2020. urtean gure kultura jarduera nagusiak mantentzeko apustu argia egin genuen, jazzaldia, hamabostaldia, zinemaldia, antzerkia, museoak.... Aurreko urtean ikasitakoarekin 2021. urte honetan apustua areagotu egin da, udaran zehar gure hiriak kulturaz gozatzeko eskaintza bikaina eskaini duelarik.

Programazioari kosta ahala kosta eustea izan da apustua, une batzuetan zaila izan bada ere. Finean, kultur esparruko profesionalei lan aukerak eskaintzea eta herritarrei eskaintza bermatzea da sektoreari egin diezaiokegun ekarpenik handiena.

Ondorioz, bigarren urtez, egutegiko kultur zita guztiak ospatu ditugu: Dferia, Giza Eskubideen zinemaldia, Jazzaldia, Hamabostaldia, Zinemaldia, Literaktum, Beldurrezko astea, Poltsiko Antzerkia eta Abuztua Donostian.

Gainera zita eta ekimen berriak ere gehitu dira, Hiriko galeriekin elkarlarlanean Gallery Weekend edo Donostia Apain, adibidez.

Aurten gainera, gure hiriak bere ondare artistikoa aberastu duen *Hondalea* zabaldu du. Ezbarrik gabe *Hondalea* mugarririk berri bat da Donostiak egiten duen kulturaren aldeko apustuan.

Orain gure festa nagusiak ere berreskuratzeko atarian gaude. Ilusioz ekiten diogu erronka honi, baina konsiente izan behar gara ez dugula oraindik erabateko normaltasuna berreskuratu eta hori egiterakoan derrigorrezkoa izango da arduraz eta zuhurtasunez jokatzea.

d) Next funtsak. Etorkizuna

Bizi izan dugun krisi egoera gainditzeko eta eraldaketari ekiteko Europar Batasunak agindutako funtsen onuradun izateko asmoz, aurreko urtean gogor ekin genion lanari gure Hiriak prozesu horretan paper garrantzitsua izan zean.

Esan beharra dago honek Udaletxeko departamentuen arteko lana egitea eskatu duela, baita beste euskal Erakundeekin batera ere. Etxekolanak ondo baino hobeto egin dira, eta gurdaino egon diren deialdi guztieta Donostiako Udalak proiektuak aurkezteko gaitasuna izan du.

Lan horretan Donostia Sustapenak egindako lana azpimarratu nahiko nuke, lehentasun berrietara moldatzeko gaitasuna handia erakutsi duelarik.

Aitortu beharra dago, eta horrela egin nuen orain egun gutxi Ogasun Batzordean, gauzak ez direla izan guk nahi genuen bezala, ez prozesuari dagokionean ezta abiadurari dagokionean ere.

Hasiera batean aurre-ikusten zen funtsak Erkidegoek kudeatuko zituztela, eta horregatik Donostiak bere ekarpena egin zion Next Euskadiri. Gerora ikusi da hori ez zela horrela izango. Funtsak gaiaren arabera deialdi ezberdinetan ateratzen ari dira, eta horrek etengabeko lana eskatzen digu, ateratzen den deialdi bakoitzerako proiektuak prestatuz. Orain arte atera diren deialdietara ia 40 miloiko balioa duten proiektuak aurkeztu ditugu.

Bestalde, hasiera batetan bazirudien deialdiak apirilean aterako zirela, atzerapen askoren ondoren, lehen deialdiak irailaren amaieran argitaratu dira. Donostiako Udala guztietaura aurkeztu da, eta hori egiten jarraitzeko asmoa dauka. Gure Hiria eraldatzen lagundu ditzaketen funtsak eskuratzeko aukerarik ez dugu galduko, eta horretara buru-belarri daukagu organizazioa.

2022rako aurkeztu berri dugun aurrekontu proiektuan ere garrantzi berezia eman diegu Next funtsen bidez gauzatu daitezkeen proiekturei.

Hurrengo hilabeteetan deialdi gehiago aterako direla aurre ikusten dugu, eta Estatuko Aurrekontu Orokoren proiektuak datorren urterako ere deialdi berriak aterako ditu.

Deialdiak atera ahala eta gure proiekturek finantzazioa lortu ahala, kudeaketa erronka handia izango da udalarentzat guzti horiek epean exekutatzea. Horretarako ere Udalaren makinaria prestatzen ari gara.

Hurrengo urteetan aurrera pauso handiak eman ditzakegu etorkizunekoak diren arlo askotan; pertsonen zaintzan, energia berriztagarrien erabilera, mugikortasun iraunkorrean, digitalizazio eta berrikuntzan edo gure Hiri-habitatataren eraldaketan. Aukera horiek baliatzea da une honetan daukagun erronkarik handienetako, gure Hiria eraldaketa prozesuan punta puntako Hiria izan dadin.

2.- Udal Gobernu egitasmoaren ildo estrategikoak: Emandako aurrerapausoak.

Nere hitzaldiaren bigarren atal honetan, udal gobernua osatzen dugun bi taldeek adostutako egitasmoak jasotzen dituen ildo nagusiak jorratu nahiko nituzke.

Esan beharrik ez dago urte eta erdi honetako egoerak udal kudeaketa erabat baldintzatu duela. Egoerari aurre egitea izan da lehentasuna, ezin zuen bestela izan.

Baina udal gobernau honek helburuak argi dauzka, eta horiek lortzeko lanean jarraitzen du.

En ese sentido, quiero destacar que este Gobierno Municipal de coalición goza de muy buena salud, algo que resulta imprescindible para seguir avanzando en el cumplimiento de los compromisos que adoptamos en el programa de gobierno.

El Gobierno municipal que encabezo gracias al apoyo del PNV y del PSE-EE tiene clara su hoja de ruta y su plan hasta el final de la legislatura para reactivar esta ciudad y darle el impulso que necesita tras el año y medio de ralentización que hemos vivido.

Vayamos por partes,

a) Kalitatezko empleo eta garapen ekonomikoa

Ayudar a los sectores que más lo han necesitado ha sido nuestro principal esfuerzo durante este último año. Pero además de ese esfuerzo, que en un momento puntual resulta imprescindible, seguimos trabajado porque Donostia sea una Ciudad capaz de ofrecer oportunidades.

Donostia es una Ciudad de ciencia. La revista *Nature* nos sitúa entre las 200 principales ciudades científicas de mundo. Esa es una apuesta que debemos seguir impulsando. Propiciando la actividad formativa en Donostia, con las Universidades a la cabeza e impulsando la actividad

del Parque Tecnológico de Miramón, así como de otros polígonos que desarrollan su actividad en la Ciudad.

El crecimiento de las actividades en el parque tecnológico de Miramón que se ha producido durante estos últimos años, en especial con actividades relacionadas con las biociencias hace necesario que abordemos la ampliación del mismo, proceso que ya hemos iniciado. Del mismo modo, estamos trabajando para que la actividad que pueda implantarse en Illumbe esté ligada al propio parque.

Y si el conocimiento es uno de nuestros rasgos de identidad como Ciudad, la retención y atracción del talento deben ser una de nuestras principales actividades. Hace escasa fechas se han iniciado ya los trabajos para la construcción de la segunda Talent House en nuestra Ciudad. Un proyecto que esperamos sea realidad dentro de dos años.

Teniendo en cuenta el enorme potencial que tiene Donostia en el ámbito de la gastronomía, y cumplidos ya 10 años de la implantación del Basque Culinary Center, tras la apertura de LABe en Tabakalera, trabajamos ahora de la mano con el propio BCC y otras instituciones en un nuevo proyecto basado en la apuesta por la innovación. Gastronomy Open Ecosystem quiere ser un nuevo paso en la consolidación de nuestra Ciudad como referente gastronómico mundial.

El desarrollo de la actividad industrial en Donostia es otra de las grandes apuestas que va dando sus frutos y que relanzará el peso de este sector en la economía de nuestra Ciudad durante los próximos años. El polígono de Eskusaitzeta es a día de hoy el mayor polígono industrial de Gipuzkoa. De forma simultánea al avance de su urbanización se van produciendo nuevas ocupaciones que, vista la demanda existente, serán aun mayores en los próximos años.

Esta misma semana se ha concedido la licencia para la construcción de Mubil, el Centro de movilidad inteligente y sostenible que busca generar un polo ligado a la electromovilidad en este ámbito. Una actividad perfectamente alineada con la transición verde en la que Donostia también quiere ser referente.

He mencionado en el apartado dedicado a las medidas adoptadas para hacer frente a la crisis a los sectores más afectados por la misma, comercio, hostelería y cultura. Sectores con los que tenemos que seguir

trabajando en la medida en que son parte importante de nuestra actividad económica y de nuestra identidad.

Además, debemos ser capaces de lograr que estos sectores se vean beneficiados por la actividad turística de la Ciudad, una actividad generadora de riqueza y que debemos cuidar, haciendo una apuesta clara por un modelo de turismo sostenible tal y como viene definido en el Plan Director de Turismo.

En definitiva, creo que es importante que reafirmemos nuestro compromiso firme por un desarrollo económico sostenible y diversificado, especialmente en aquellos ámbitos en los que Donostia ha demostrado contar con un ecosistema propicio que debemos seguir cultivando.

Donostia atrae talento y lo tiene que seguir haciendo. Somos una ciudad que tiene un entorno favorable a la investigación. Ese es el camino, y lo tenemos que fortalecer.

b) Gizarte-kohesioa

Pandemiari aurre egiteko neurrietzaz aritzerakoan aipatu dut Udalak gizarte kohesioaren alde egindako esfuerzo berezia. Bistan da bizi izan dugun egoerak gizarte kohesioarengan eragin ezkorra izan ditzakeela, eta beraz, esparru hau lehentasuneko esparrua da ezbairik gabe.

Lehenago aipatu ditudan familiei eskainitako laguntzaz haratago, aipatu nahiko nuke aurtengoa babesgabetasun egoeran dauden haurrek babesteko, detekzio eta esku hartze goiztiarra programan bi unitate berri jarri direla eskoletan martxan, edo bortxakeria matxistaren biktima diren emakumeak artatzeko egitura ere indartu dela, azken bi urteotan izan dugu behin-behineko plaza behin-betiko bihurtuz.

Guztiok ezagunak dira udalak arlo honetan dituen programa, baliabide eta azpiegiturak. Horiek handitzeko eta hobetzeko esfuerzo egin da urte hauetan, eta hurrengo urteetan ere bide horri ekingo diogu. Bereziki aipatu nahiko nuke etxerik gabekoei zuzendutako baliabideen artean *Hestia*. Udal gobernu honek apustu garbia egin du baliabide honek merezi duen kokapena izan dezan, datorren asteko Gobernu Batzordeak lanak esleituko ditu.

Donostiak betetzen ditu zerbitzuetako zorroak zehazten dizkion zerbitzu guztiak.

Gai hauetaz ari garela, ezinbestekoa iruditzen zait hirugarren sektorea deitzen diogun horri aipamen berezia egitea. Gure lurraldearen ezaugari positibo baitira hirugarren sektorearen indarra eta dinamismoa. Erakundeak iristen ez diren lekuetara iristeko daukaten gaitasuna erabat ordezkaezina da, eta horregatik hauekin elkarlana indartzea ezinbestekoa zaigu.

Azkenik atal honetan Lagunkoia proiektuari aipamena egin nahiko nioke, Donostian indar berezia duena, eta bere lana lau ardatzen inguruan egiten jarraitzen duena, alegia:

Espazio publiko integratzalea ahalbidetzen eta mugikortasuna hobetzen.

Bizitza osorako etxebizitza sustatzen.

Zaintzen duen komunitate bat eraikitzen.

Bizitza ziklo berri baterako transizioa eta adinaren kudeaketa lantzen.

d) Etxebizitza eta Hirigintza

Udal Gobernuak bere egitasmoan jasotakoari jarraiki, abian jarri dugu Plan Orokorraren aldaketa egiteko aurrerapen prozesua. Zalantzarak gabe, tresna honek aukera paregabea eskainiko digu etorkizuneko Donostia marrazteko eta erabakitzeko orduan. Guztiak gaude horretara deituak.

Behin baino gehiagotan adierazi dugu 2010ean onartua izan zen Plan Orokorra ez datorrela bat gaur egun eskuartean ditugun ikuspegi eta ideiekin. Plan Orokorr berriak jadanik gaur egun erabiltzen ditugun kontzeptuak jaso beharko ditu; erabilera nahasketa, hiri konpaktua, espazio berriak eskuratu beharrean eraikiak daudenak berreskuratzea... Edonola, IRAUNKORTASUNA maila guztieta txertatuko duen dokumentua izan behar duela garbi daukagu.

Bitartean, ezinbestekoa zaigu egungo tresnekin Hiria egiten jarraitzea, dauzkagun beharrek erantzunak behar baitituzte. Asko dira une honetan lantzen ari diren eremuak, baina utzidazue espresuki horietako bitaz jarduten:

1.- Urumeako ibaiertzak: Eraldaketa sakon baten prozesuan daukagu eremu hau, eta prozesuak aurrera egiten jarraituko du. Ezbarik gabe, eremu honetan bat egiten dute etorkizuneko hirigintza esaten diogun horrek jaso behar dituen ezaugarri nagusienak. Batetik, Hiria jadanik urbanoak diren espazioetan hazten ari da, erabat beharrezko den birgaitze prozesu baten barruan. Ibaiaren zabaltze lanak laster amaituko dira, Txomin enea auzoari dagokionean, Eusko Jaurlaritzari zegozkion etxebizitzak aurrera doaz, eta Arteleku plaza eraikitzeko lanei aurki ekingo diogu. Loiolan Lorategi Hiria errealtitate bihurtzen hasteko atarian gaude, Loiolako bulebarizazio lanen amaierarekin batera beste gune eraldatu bat osatuko delarik.

Eskusaitzetan kartzela berria eraikitzeko lanak abian dira, eta epeak betetzen baldin badira bi urtetan oraingo kartzela hustu eta Txomi Enenan bigarren faseari ekiteko moduan izango gara.

Jakina, gune honetan daukagun erronkarik importanteena egun Loiolako kuartelek okupatzen duten orubea eskuratzearena da. Eusko Alderdi Jeltzaleak 2021eko Estatuko aurrekontuak onartzekoan lortutako akordioari esker, aurtengo urtean negoziazioek aurrera egin dute Defentsa Ministerioarekin. Lan handia egin da Hirigintza Departamentutik bertan kokatu daitekeen Hiriaren ezaugarri eta mugak zehazten. Horiek Defentsa Ministerioarekin landu dira, eta gaur esan dezakegu amaitu gabeko negoziazioa izanda ere, asko aurreratu dela. Espero du hainbeste urtetan amestu dugun aukera hori laster errealtitate bihurtzeko bidean izatea.

Kontuan izan behar dugu gune hau, Hiriari geratzen zaion Iursail lau zabalena izateaz gain, erabat nuklearra den inguru batetan kokatzen dela. Hainbestetan Urumea ibaiaren inguruan benetazko zentralidade bat osatzeko azaldu dugun asmo hori erabat garatuko lukeena.

2.- Tolosa Hiribidearen jarraipena: Hau da Hiriak esku artean duen beste zabalkunde gunerik nagusiena. Hau ere, aurrekoa bezala, eraikitako Hirian kokatzen da, birgaitze prozesu azpimarragarri baten barruan beraz.

Infernua bezala ezagutzen dugun gunearen planeamendua osatuta, bertan ziren pabiloi zaharren eraisketa ikusten ari gara. Hasi da beraz gune honen eraldaketa prozesua ere, Hiriaren jarraipen gisa. Egitekoak diren 540 etxebizitzetatik erdiak babestuak izango dira.

Hemendik aurrera, plan orokor berriaren edukietan puntu honen jarraipena aurre ikustea izan beharko litzateke helburu nagusienetakoak, Donostiako zeharbide zaharraren korapiloa desegin eta Hiriari Añorgaraino jarraipena emanaz. Aktuazio honek, Añorga Txiki bera eta bertan aurre ikusita dauden garapenak Hirian modu egokiagoan integratzea ahalbidetuko duelakoan nago.

Aldakonea, Zardoya Otis, Illara edo Igara bezalako eremuak garapenak osatuko dute etorkizuneko Donostia izango dena, eta garrantzitsuena dena, eremu guzti hauen garapenek merkatuan etxebizitza eskaintza berria ekarriko dute, babeseko etxebizitza portzentajai oso altuekin.

Datos:

En lo que resta de legislatura estaremos en disposición de iniciar la construcción de 1.729 viviendas, de las cuales el 40% serán protegidas. Eso sin contar cuartéles y otras importantes promociones que serán posibles en el futuro como Igara, etc.

Procurar que en nuestra Ciudad exista mayor oferta de vivienda de diversas tipologías es para este Gobierno una prioridad. Y lo es porque somos perfectamente conscientes de que el acceso a la vivienda en nuestra Ciudad sigue siendo un problema al que no resulta sencillo dar respuesta. Un problema que además afecta especialmente a los más jóvenes.

Es por eso que hoy quiero traer a este Pleno el compromiso alcanzado con Elkarrekin Donostia en el marco de la aprobación del último presupuesto municipal. Un compromiso que para este Gobierno sigue teniendo plena vigencia. Este Gobierno Municipal sigue atento a la evolución del marco legal existente con respecto a la vivienda. Por supuesto el de la Comunidad Autónoma, y aquel que pudiera afectarnos desde otros niveles. Y estaremos abiertos siempre a utilizar los instrumentos que permitan racionalizar el mercado de la vivienda en nuestra Ciudad. Muestra de ello es también el último acuerdo alcanzado con Elkarrekin Donostia en el marco de la aprobación de las Ordenanzas Fiscales en torno al recargo del IBI para las viviendas vacías.

e) Gizalegezko baloreak eta Giza Eskubideak

Atal honetan aipamen berezia merezi du gizon-emakumeen arteko erabateko berdintasunaren aldeko konpromisoak. Udal honen ibilbide orria indarrean dagoen IV. Berdintasun Plana da.

Baina berdintasunarekin batera, pertsona guztien eskubideen errespetatzen dituen Hiria eraikitzen jarraitu behar dugu, gaur inoiz baino gehiago indarkeria sexista salatuz edo LGTB+ pertsonen eskubideen ikusgaitasuna bultzatzuz.

Urriaren 20an 10 urte bete dira ETAk bere jarduera behin betiko alde batera utzi zuela. Uste dut guztiok bat egingo dugula gauzak asko hobetu direla esaterakoan. Zalantzarik gabe hori horrela da. Gaur ez gara bizi hurrengo atentatuaren edo hurrengo erahilketaren zain. Guztiok nabaritu dugu hobekuntza hori, guztiak gara askeago, bereziki mehatxupean bizi izan diren pertsonak.

Askorentzako ordea beranduegi izan da, eta uste dut gure egitekoa dela horiek guztiak gogoan izatea. Gure kaleetan biolentziaren ondorioz bizitza galdu zuten pertsonak oroitzeko abian jarri genuen ekimenak pauso berriak eman ditu, eta pauso berriak emango ditu baita etorkizunean ere hiriko leku ezberdinatan oroigarri diren plaka berriak jarriaz.

Baina hori ez da nahikoa, gure Hiriak sufrimendu mota asko ezagutu dituelako, eta horiek ere azaleratzen, ikusten joan behar gara. Zalantzarik gabe, sufritu zutenek merezi dutelako eta jakina, horrek iraganean egindako okerrak ez errepikatzen lagunduko gaituelako.

Donostiak Giza Eskubideen alde egiten duen apustua da gure nortasunaren bereizgarri. Eta hori lantzen jarraitu beharra daukagu, ez baitago bizikidetzaroko oinarri hoberik. Pandemiak momentu batzuetan eragina izan badu ere, lan hori egiten jarraitu dugu. Hor daude memoria historikoaren esparruan burututako lanak, giza eskubideen batzordearen lanak, Giza Eskubideen zinemaldiak aurten ospatu ahal izan duen edizioa eta beste hainbat eta hainbat lan ildo.

Ezinbestekoa zaigu guzti horietan lanean jarraitzea, gure Hiria Giza Eskubideen aldeko aldarrikapenaren erreferente bilakatuz.

La nueva etapa que dio comienzo hace 10 años en nuestra Ciudad requiere el firme compromiso de todos y todas en favor de los Derechos Humanos y de la Paz. Compromiso, esfuerzo y dedicación. Estoy convencido de que a pesar de las dificultades, todos los grupos de esta Corporación estamos convencidos de ello, y que todos tenemos la firme voluntad de seguir trabajando por la convivencia. Sin duda, hoy todos miramos al futuro con ilusión.

f) Erreferentiazko hiria euskararen, kulturaren, sorkuntzaren eta aniztasunaren sustapenean.

Zaitasun guztien gainetik Donostiak Kulturaren alde egiten jarraitu du. Aipatu dut hori nire hitzaldiaren hasieran. Eta aipatu dut ere aurten gure Hiriaren ondare artistikoari gehitu zaion *Hondalea*. Horri helduaz, mahai gainean jarri nahiko nuke gure hirian gune publikoan kokatua dagoen arteak duen garrantzia. Horretan ere erreferente bilakatzen ari bait gara. Horrek eskatzen digu daukaguna behar bezala zaintza eta mantentzea, baina baita elementu eta apustu berriak egitea ere. Horretan ere lanean ari gara, hurrengo urteetan ekarpen berriak egiteko asmoz.

Donostia euskararen hiria dela aldarrikatzen dugu. Gure nortasunaren ezaugarri gisa. Baina hori horrela izan dadin ezinbestekoa zaigu lanean jarraitzea. Bai etxe barruan baita kanpora begira ere.

Etxe barrura begira, pauso handia eman dugu aurten. Lehendik genituen bost euskarazko atalei beste zazpi gehitu zaizkie. Lehenagotik zetozentzen Berdintasun, Hezkuntza eta Gazteria, Herri Partaidetza eta Euskara Zerbitzuari, Antolamendu eta kalitate zerbitzua, Kontratacio Zerbitzua, Programazio, Azterlan eta Aurrekontuen Zerbitzua, Kultur Aniztasunaren Atala, Lankidetza Atala, Zeharkako Zerbitzuak Koordinatzeko Zuzendaritza eta Alkatetza bera gehitu zaizkio. Esan beharrik ez daukat bereziki pozten nauela Alkatetza ere euskarazko atal izatea.

Baina etxe barruko gaietaz haratago uste dut guztiok bat egingo dugula euskarekin erronka bere erabileran daukagula esaterakoan. Horregatik jarri da martxan “Erraza da” egitasmoa. Merkataritzan eta Ostalaritzan euskararen presentzia areagotzeko proba pilotua da hau, Jaurlaritzak Donostian egitea erabaki duena, gero Erkidego guztira zabaltzeko asmoz.

Donostia beti izan da aitzindari hizkuntza politiken esparruan. Baino etorkizunera begira, eta aitzindari izaten jarraitu nahi badugu, ezinbesteko zaigu euskara biziberritzeko aurreikusten diren zeregin berrituei udaletik ahalik eta egokien erantzuten asmatzea. Horregatik ekin diogu “Etorkizuneko Euskara Zerbitzua” diseinatzeko gogoeta prozesuari.

g) Hiri jasangarria

Cuando hablamos de sostenibilidad resulta obligado referirse a los tres pilares en los que se sustenta: Desarrollo económico, social y medioambiental.

Donostia es una Ciudad comprometida con el logro de los objetivos de desarrollo sostenible. Esto es algo que está ya plenamente integrado en la propia gobernanza y en la reflexión estratégica de nuestra Ciudad.

El análisis comparativo con respecto a otras capitales de Provincia o Territorio Histórico del Estado nos hace ver que hoy Donostia parte de una muy buena posición. Una buena posición que no debe hacernos caer en la autocoplacencia y que debe servir de acicate para el logro de los objetivos que nos quedan por alcanzar.

Me gustaría centrarme en este momento en el objetivo número 11, el enunciado como “Ciudades y comunidades sostenibles”. Y en el especial papel que juega el transporte en el logro de ese objetivo. Y es que además, el plan KLIMA 2050, en el que se recogen los compromisos adoptados por nuestra Ciudad en la lucha contra el cambio climático también se cita el transporte como elemento fundamental para lograr la reducción de emisiones.

En definitiva, y desde todo punto de vista, la movilidad en nuestra Ciudad es uno de los principales retos que abordamos de cara a futuro. Y hoy quiero abordarlo desde una perspectiva de oportunidad. Oportunidad para mejorar y transformar Donostia. En definitiva, una oportunidad para mejorar la calidad de vida de todos y todas las donostiarras. Ese es un proceso en el que ya estamos inmersos. Donostia está hoy en proceso de transformación, y el principal elemento que lo permite es la transformación de la movilidad.

Soy consciente de que ese proceso de transformación urbana, con numerosas actuaciones en curso genera afecciones. Pero eso es algo absolutamente necesario para mejorar. Las obras de construcción del topo, de la nueva estación del Tren de Alta Velocidad, del viaducto de Iztueta, del Paseo de la Concha y tantas otras son necesarias para que podamos tener una Ciudad más amable y más sostenible. Esa es la Ciudad hacia la que queremos ir.

Una Ciudad en la que el peatón sea protagonista, en la que la bicicleta sea un modo de transporte cada vez más relevante y en la que el transporte público ofrezca de un modo sostenible alternativas solventes al vehículo privado en clave metropolitana. Además de las actuaciones en curso, nos quedan actuaciones futuras en las que debemos avanzar, como el intercambiador de Riberas de Loiola, la mejora de la red de cercanías de Renfe, la electrificación y mejora de la flota de autobuses y la ampliación de la red de bidegorris y del servicio de bicicleta pública.

Todo ello acompañado de un sistema que nos permita racionalizar el acceso del vehículo privado al espacio urbano, para lograr reducir emisiones pero sobre todo para recuperar espacio público.

Quiero mencionar la Playa de vías de Easo, como principal espacio de oportunidad que estamos diseñando y que unirá Amara con el Centro recuperando para la Ciudad un gran espacio central cuando concluyan las obras del Topo.

Este es el gran cambio hacia el que nuestra Ciudad avanza, un cambio en el que estamos dispuestos a colaborar, a compartir. Y no para repartir responsabilidades, como algunos pueden pensar, sino para afrontar un cambio que es de largo alcance y que debe trascender colores políticos y coyunturas.

Les tiendo la mano para que trabajemos todos en el diseño de la movilidad del futuro de esta ciudad, con el fin de lograr una ciudad más amable, más limpia y más peatonal. Este es un objetivo ambicioso que requiere de la participación de todos para que el resultado sea el mejor posible.

h) Hiri irisgarria, garbia eta zaindua

i) Lurralde oreka eta kohesioa

Lurralde oreka eta kohesioa mantentzeak eskatzen du Udalak dituen baliabideak banatzerakoan, hiriaren gune ezberdinetan bizitza kalitate baldintzak berdintzeko joera izatea. Indarrean dauden aurrekontuen azterketa egin ezkerro, eta datorren urterako aurkeztu ditugun aurrekontuak aztertu ezkerro, zalantzarak gabe baieztago daiteke hori horrela dela.

Inbertsioei erreparatzen badiegu, hiriko auzo ezberdinak dira horien onuradun nagusienak. Azken urte hauetan protagonismo berezia izan du Loiola-Txomin-Martutene arteko ardatzak. Eta abian diren lanei erreparatzen badiegu, aipagarri dira Ibaiaren zabalkundearen bigarren fasea, Txomineneko Arteleku plazaren projektua edo Loiolako zeharbidean burutzen ari diren lanak. Gainera, Aldundia 27. poligonoaren irteera berria eraikitzen ari da, gure historian hain garrantzitsua izan den industrialde hau lehiakorragoa egiteko asmoz.

Bestalde, azken urteotan Udalak bere kabuz egin duen inbertsiorik handiena Altzako Kiroldegiaarena da. Datorren urtean erabat amaitua izango dena. Honela, Hiriak izango duen Kirol azpiegitura modernoena Ekialdeko Barrutian izango dugu.

Datorren urteari begira, Marrutxipiko lotunearren lanen hasiera ikusiko dugu ere, hiriaren mugikortasuna hobetzeko elementua da hau. Intxaurrondon bertan Otxoki pasealekuak eta Garberako biribilguneak duten trafiko volumena arintzen lagunduko duena.

Añorgako bulebarizazioaren bigarren fasea ere aurrera doa, baita Ikasketen plazaren birgaitze projektua, eta datorren urtera begira, Amaran ere Antxo Jakitunarekin eta Olaeta plazaren birmoldaketak aurre ikusi ditugu.

Egia Auzoan Astiñene zubiaren erainkuntza eta Iztuetako pasabidearen lanak aurrera doaz eta datorren urterako biak amaituta egongo dira.

Esan bezala, auzoak dira Udalak aurrera eramateen dituen inbertsioen protagonista, eta helburua auzo ezberdinek eskaintzen duten bizi kalitatea berdintzea.

Oreka baliatzeko esfortzu horren barruan ere kokatu nahiko nituzke garapen ekonomikoaren arloan Donostia Sustapenak eskaintzen dituen

lagunzetan erabiltzen diren irizpideak, kolektibo ezberdinen irizpideaz gain lurralte irizpideak ere kontuan hartzen baitira.

j) Hiri osasungarria

Tras una pandemia que ha durado ya mas de 18 meses y que todavía va a seguir marcando nuestras vidas durante un tiempo, hemos aprendido a valorar especialmente la importancia de la salud. De hecho, una de las principales tareas en la situación de excepción que hemos vivido, ha consistido en preservar la salud de nuestros conciudadanos.

Pero mas allá de una crisis puntual, debemos seguir trabajando porque Donostia sea una Ciudad saludable.

Sin duda, y lo decía al principio de mi intervención, la pandemia ha ocasionado muchos perjuicios. Los expertos coinciden en afirmar que uno de ellos se manifiesta en la salud mental de la población. Algo que va a requerir respuesta por parte del Servicio Público Vasco de Salud. Y esta es una cuestión que ya venía siendo planteada antes de la pandemia y que ahora ha adquirido plena actualidad. De hecho, en el diseño de los nuevos Centros de Salud de la Ciudad, los espacios que se nos han requerido para este tipo de atención ha ido en aumento. Ejemplo de ello son el nuevo ambulatorio de Aiete o el del Centro-Parte Vieja que en este momento se halla en ejecución en el edificio Pescadería. El reto en el que ahora estamos inmersos es en el nuevo ambulatorio de Txomin-enea. Absolutamente necesario para la zona y que deberá también responder a estas necesidades.

La mejora de la calidad de nuestras aguas o del aire y el ruido son también materias que merecen especial atención en este apartado. Debemos seguir avanzando en su mejora, como se ha venido haciendo en los últimos años con el ciclo del agua, o como deberemos hacerlo con el establecimiento de zonas de bajas emisiones.

Finalmente, no puedo dejar de mencionar la relevancia de la práctica deportiva como factor determinante en lo que a la promoción de la salud se refiere. El cuidado de las infraestructuras, el apoyo a los clubes deportivos de la Ciudad y la recuperación de las competiciones son cuestiones relevantes que están requiriendo un gran esfuerzo por parte del Ayuntamiento en la actual coyuntura.

3.- Udalaren funtzionamentuaren hobekuntza: Partehartzea

Al inicio de esta legislatura planteamos introducir un proceso de cambio en la organización de la administración municipal. Con la creación de la figura del Coordinador de Servicios Transversales hemos buscado adaptar la organización municipal a nuevos modos de funcionamiento que tienen un objetivo claro: ofrecer un mejor servicio público y una mejor atención al ciudadano.

El empeño durante esta primera mitad de la legislatura se ha centrado en superar el funcionamiento departamentalizado del Ayuntamiento y buscar nuevas formas de trabajo transversales. Los avances que se han producido en la atención integral al ciudadano dan buena muestra del resultado obtenido. La integración de cada vez mas áreas en el servicio que ofrece Udalinfo, y los avances en la realización de trámites on line son procesos que van a seguir creciendo en los próximos años.

Aunque nadie fueramos conscientes de ello cuando pusimos en marcha esta transformación organizativa, las circunstancias que hemos vivido en esta legislatura son las que más de manifiesto han puesto la necesidad de introducir este cambio en nuestra organización.

Estoy convencido de que la gestión de la crisis sin una estructura transversal hubiera sido infinitamente más complicada.

Parte-hartzea:

Egia da 2020. urtea oso konplikatua izan zela, baita parte-hartzea gauzatzeari dagokionean, bizi izan ditugun baldintzek zaitasun ikaragarriak eragiten dituztelako. Hala eta guztiz ere, modu telefoniko edo telematikoan harremana etengabea izan da. 2021. urte hau aldiz ezberdina izan da, eta aukera eskaini digu aurretik zetozent dinamikak jarraitzeko eta berriak martxan jartzeko.

Ugariak dira Hiriko proiektu nagusienen inguruan aurrera eraman diren prozesu parte-hartzaleak, eta hori izango da aurrerantzean ere egingo den lana. Baino gaurkoan gustatuko litzaidake 2020. urtearen amaieran hasitako prozesu bati buruz jardutea. Pandemiak oro har eragin negatiboak eragin badizkigu ere, kasu honeta AUZO-MAHAIAK ekimena abian jartzeko aukera eskaini digu. Gizartearen hauskortasuna agerian

jarri den honetan, auzoz auzo agente ezberdinen arteko elkarlana abian jartzea da ekimenaren nahia. Eta helburua jakina, auzoaren ongizatea hobetzea.

Donostia Lagunkoia ekimenak duen izpirituarri jarraiki, Udala agente ezberdinen arteko sareen “jostun” izan nahi du, komunitatearen jostun finean.

Amara- Berri eta Loiolako Erriberetan eratu dira lehen AUZO-MAHAIAK, baina gure asmoa da dinamika hau auzoz auzo zabaltzea.

Desentralizazioaren ikuspegitik, hiru dira aipatu nahiko nituzkeen eremuak:

-Ekialdeko Barrutia: Ekialdeko Barrutia abian jarri zela hiru urte dira. Barruti bat lehen aldiz martxan jartzea ez da lan erraza izan. Barrutiaren eraketak ohituak ez geunden modu berri batean funtzionatzea eskatu digu guztioi, eta prozesu horiek ez dira xamurrak izaten. Legealdiaren hasieran komunikazio arazoak zeudela hantzeman genuen, eta horiek zuzentzeko, neurriak hartu dira, bai udaletxearekiko eta baita Ekialdeko Barrutian bizi diren hiritarrekiko. Aurrera pauso nabarmenak eman dira eta esan dezakegu Ekialdeko Barrutiaren dinamikak egonkortzeko eta sendotzeko bidea hartu dutela.

-Zubieta: Aurreko legealdian Usurbilgo eta Donostiako udalteen eta Zubietako Herri Batzarraren arteko hitzarmena sinatu genuen. Hitzarmen hori mugari bat izan zen Zubietarekiko bi Udalek genuen jarduteko moduari dagokionean, Herri Batzarrarekin batera ibilbide berri bati hasiera eman geniolarik. Azken urte hauetan hitzarmen horren jarraipena egin dugu Usurbilgo Udalarekin eta Zubietako Herri Batzarrarekin batera.

Aipagarri iruditzen zait gainera Usurbilgo Udala lantzen ari den Plan Orokorraren berrikuspen prozesuan Donostiako Udalak parte hartu izana, horrek garbi adierazten baitu Donostiak eta Usurbilek Zubietaren mesedetan elkarlanean aritzeko duten prestatutsuna.

-Igeldo: Igeldoko Toki Entitate txikia abian jartzeko prozesua aurrera doa. Hartutako konpromisoari jarraiki, Udal Gobernuak prozesua abian jarri zuen eta Lantialdea eratzeko erabakia Osoko Bilkura honetara ekarri zuen maiatzean, behin hori eratuta, lanak aurrera doaz, hurrengo legealdian errealitate izan dadin eman beharreko pausoak jarraituaz.

Aurrekontu partehartzaileak:

Zoritzarrezz Udal Gobernuaren asmoetan pandemiak eragin zuzena izan zuen aurreko urtean. Gure nahia zen 2020. urtean aurrekontu partehartzaileen prozesua burutzea. Lehen pausoak ematen hasiak ginela, konfinamenduak modu bortitzean eten zuen prozesu hau.

Aurten gogoz burutu dugu prozesua, 2022 eta 2023 urteetako aurrekontuetan hiritarrek erabakitako inbertsioak jaso ahal izango ditugu beraz.

4.- Gogoeta estrategikoa.

Urte honetan landu eta burutu da 2030 urtera begira Hiriaren estrategia. Lanketa hori gainera eragile ezberdinaren parte hartzearekin gauzatu da. Beraz, estrategia bateratu bat da, etorkizunerako gida izan behar duena.

La próxima semana el Consejo Social de Donostia tendrá ocasión de hablar sobre la Estrategia 2030 de nuestra Ciudad. Se ha trabajado intensamente con diversos agentes una visión conjunta. Una visión que quiere ser el el motor de nuestra Ciudad durante los próximos años y en la que lo fundamental será la capacidad de colaborar que tengamos los distintos protagonistas de la Ciudad.

Se han fijado 15 objetivos que Donostia se marca de cara al futuro y que este Gobierno hace suyos. 15 objetivos que han impregnado mi intervención en este pleno y en los que me quiero reafirmar:

1.- Industria jarduera aurreratuko lurralte batean kokatuta dagoen eta hirugarren sektorean oinarritzen den hiri baten garapen ekonomiko orekatua eta dibertsifikatua indartzea, emplegu, zerbitzu aurreratuetan eta susperraldian dauden ezagutza esparruetan oinarritzen diren eta Donostiak dituen gaitasun handiez baliatzen diren jarduerak bultzatzuz (besteak beste, nanotecnologías, biotecnologías, salud y neurociencias).

2.- Mundu mailako gastronomía aitzindari diren hiri eta lurraldeen taldean dugun posiconamiento indartzea, berrikuntza cultura gastronómica tradicionalaren babesarekin uztartuz.

3.- Aurrerapausoak ematea sormen eta kultura industrien garapenean eta, bereziki, ikus-entzunezkoen sektorean eta diseinuaren eta musikaren sektorean.

4.- Turismo jasangarriko eredu bat garatzea, hirian finkatutako jarduera ekonomiko bat eta beharrezkoa den oreka uztartuz, donostiarrek eta hiria bisitatzen dutenek hiriaz era normalizatuan gozatu ahal izateko.

5.- Hirian finkatuta dagoen eta hiriko bizi kalitateari eta oparotasun ekonomikoari laguntzen dion merkataritza berezi eta hurbila indartzea.

6.- Favorecer el rejuvenecimiento demográfico de la Ciudad, a través de la llegada de nueva población, la atracción y mantenimiento de la juventud y facilitando la conciliación.

7.- Garantizar la calidad de vida de las personas mayores, mediante medidas coordinadas e integradas (desde las diferentes entidades) que favorezcan el envejecimiento activo, la lucha contra la soledad y una adecuada planificación, sostenible en el tiempo, de las necesidades (individuales y colectivas) y la asistencia en los grupos más vulnerables (personas mayores, solas, personas discapacitadas...).

8.- Avanzar hacia la inclusión social, luchar por la igualdad y por evitar cualquier situación de exclusión social (por razones económicas, de género, personas sin hogar, y, en general, personas en situación de vulnerabilidad), y en la elaboración / construcción y aplicación de un modelo de integración para la población inmigrante.

9.- Promover un modelo cultural que conjugue contemporaneidad con el mantenimiento, y transformación, de la cultura vasca y el euskera como instrumento para la convivencia y la creación de comunidad.

10.- Desarrollar una Administración Pública Inteligente, innovadora y modernizada que lidere la transformación tecnológica y digital y sirva de cauce para la colaboración del conjunto de agentes públicos y privados e instituciones en la gobernanza, el avance de la ciudad y su resiliencia.

11. Jasangarritasun irizpideak kontuan dituen eredu bat diseinatzea hiria garatzeko. Eedu horrek giza eskalan mantendu behar du hiria, zabalkundea mugatuz, eta probetxua atera behar die aukera espazioen ondoriozko abaguneei, aurrerabide ekonomikoa eta pertsonen bizi

kalitatea hobetza ahalbidetuz, eta auzoen arteko oreka eta metropoli eta lurralte barruko interkonexio jasangarria bermatuz.

12.- Hiri erresiliente bat sustatzea, osasunaren, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren inguruko erronkei, tokian tokikoei eta globalei aurre egiteko prest dagoena. Klima 2050 Estrategia eta egokitzeko eta aritzeko estrategiak ezarriko dituena, mugikortasuneko eta baliabideen kudeaketako ereduen eraldaketa jasangarria garatuz eta hiri metabolismo zirkularrerantz aurrera eginez, eta nazioartean erreferente bihurtuko dena ingurumen jasangarritasunaren eta klima aldaketari aurka egitearen eta egokitzearen arloan.

13.- Hiriko bizitzaren kalitatea eta etengabeko hobekuntza bermatzea eta, hiriaren berezko izaeratik eta gastronomian, kulturan, jakintzan... aitortua duen iruditik abiatuta, nazioarteko proiekziorako estrategia bat diseinatzea, hiriaren gaitasunetan ez ezik, lurraldearen sustaietan ere oinarrituko dena.

14.- Hiriaren posizionamendua indartzea, maila anitzeko lankidetza publiko eta pribatuan oinarritutako lidero partekatua eraikiz, eta kanpoan proiekzioa izateko bultzada ematea.

15.- Garapen Iraunkorrerako Helburuak sustatzea hiria eraldatzeko esparru gisa, eta arreta pertsonetan jartzen jarraitzea, tokiko 2030 Agenda eta horren barneko konpromisoak lurraldeko eragileekin eraikita.

El objetivo y el empeño de este alcalde y de este gobierno municipal no es otro que mejorar la calidad de vida de todos y cada uno de los y las donostiarras. Estamos trabajando para dejar una ciudad un poco mejor que la que recibimos. Porque nosotros y nosotras también somos parte de esta ciudad, y porque queremos que nuestros hijos e hijas puedan vivir aquí, a gusto y con posibilidades de desarrollar su proyecto vital. Ese es nuestro deseo y por ello trabajamos día a día.

Donostia horren alde lanean jarraituko dugu, Donostia horren alde lanean aritzeko prest dagoen ororekin. Aurrera begira, ez atzera. Eraikiaz, gure hurrengoek Hiri irekiago, erosoaago eta modernoagoa ezagutu dezaten, giza balioetan eraikitako Hiria finean.